



Igarotako igandean 2013ko Bertsolarien Txapelketa Nagusia ospatu zen Barakaldoko BEC-en, bertan [Amets Arzallus lapurtarrak txapela burura](#) eramanez. Lau urtetik lau urtetara ospatzen den euskararen festa handi honek bigarrenik hauspotu gaitu zonalde honetako euskaltzaleak baina bidegabekeria litzateke bertsolaritza eta Barakaldo, BEC-en ospatu den txapelketa honekin soilik lotzea. Barakaldoko Kilika bertso eskolak urteak daramatza Barakaldo eta ingurune honetako bertsolari berriak sortzen eta bertsolaritza hedatzen. Hemen duzue Kilikako lagunekin izandako salsaldia. Gabonetako oporraldian murgilduta gaudelarik, urtarrileko bigarren astean helduko diogu irratsaioari. Ordurarte... Ederto bukatu urtea eta hobeto heldu burruka eta garaipenez beteta etorriko zaigun 2014 urteari!

alt=""

```
swfobject.embedSWF('/plugins/content/avreloaded/mediaplayer.swf','avreloaded0','300','20','9.0.115','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',  
{file:'https://archive.org/download/Bertsolaritza/bertsolaritza.mp3',width:'300',height:'20',showeq:'false',searchbar:'false',enablejs:'false',autostart:'false',showicons:'true',showstop:'false',showdigits:'true',showdownload:'false',usefullscreen:'false',backcolor:'0xFFFFFF',frontcolor:'0x000000',lightcolor:'0x000000',screencolor:'0x000000',overstretch:'false'}  
,{allowscriptaccess:'always',seamlesstabbing:'true',allowfullscreen:'true',wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'}, {id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```

Deskargatu programa [hemendik](#)

